

*Irakasleak: Adela Rojo eta Lucas Duran*

**CEINPRO**

*Zikloak*

*Ideiaren izena: “Lepoko itzultzailea”*

## **“MOTIBAZIOA ETA IKASLEEN PARTAIDETZA BULTZATZEKO KOSMODISEAREN GAITASUNA BALIOESTEN DUGU”**

“Lepoko itzultzailea”, Ciclosen ideia irabazlea, CEINPROren ekimena da (Donostia), eta eramailea dagoen tokiko hizkuntza edo dialektoa unean bertan itzultzeko gai den lepokoa fabrikatzeko aukerarekin jokutzen du. Tresnak herrien eta kulturen arteko komunikazioa erraztuko luke.



Adela Rojo irakasleak eta, Lucas Duranekin batera (proposamenaren egilea), “Bidasoa” taldearen partaidetzaren erantzuleak azaldu duenez, Kosmodisean parte hartzean bere helburua da "*ideia berritzaileak adieraztea, gizarteari konponbideak eman asmoz*".

- Nola hautatu zenuten irabazle ateratako ideia?
- *Klase batean ideia-parrastada bota genuen. Ceinproko 1 A klaseko ikasle bakoitzak bere ideia adierazi behar zuten. Geroago, denak apuntatu genituen eta gizarteari ekar ziezazkioketen aukerez hitz egin genuen. Klaseak eta irakasleak gehien bozkatutako hirurak izan ziren aukeratuak.*
  
- Laburbilduz, zertan datza aurkeztu duzuen ideia?
- *Hizkuntzak eta dialektoak itzultzen dituen lepokoa da. Gure iritziz, ideiarene garrantzia da jabetzea munduko edozein tokitan dialektoak eta hizkuntzak ezagutzeak laguntza handia eman diezaguketela, herri eta kultura desberdinak harremanetan jartzeko, giza laguntzarako eta abarretarako.*
  
- Zuen iritziz, zer da Kosmodiseako proposamenaren interesgarriena?
- *Proiektua garatzeko motibazioa, ikasleek ideietan parte hartzea eta Ceinpro ikasgeletako talde-lana.*

